

Egunon guztioi eta mila esker gure gonbidapena onartzeagatik.

Hurrengo maiatzaren 27an **MENDIAN ERE EUSKARAZ** aldarria plazaratu nahi dugu, eta ekimen horren aurkezpena egitera gatoz, hemen eta orain.

Lelo horren bidez adierazi nahi dugu **mendia eta euskara uztartu** nahi ditugula, era ludikoan, mendi martxa bat eginez. Ekimen horretan parte hartzen dugun mendi-taldeok euskaraz bizi gara gure ohiko jardunean urtean zehar. Mendiz mendi euskaraz, naturaltasunez bizitzeak batzen gaitu talde guztiok. Beraz, maiatzaren 27a **ez da izango egun isolatua** gure jardunean, baizik eta mendizale euskaldun oroendako deia gurekin bat egiteko.

Zalantzarik gabe, hemen gaudenok baino talde gehiago dira Euskal Herrian zehar mendia euskaraz bizi dutenak eta, hain zuzen deialdi honen bidez, **elkarren arteko ezagutza eta harremanak errazteko** eta sendotzeko aukera bat eskaini nahi diogu elkarri. Ziur gaude agerraldi honen ostean, eta komunikabideen oihartzunaren laguntzaz, talde gehiago batuko direla gure egitasmora.

Euskarari beste **arnasgune** bat eskaini nahi diogu, non eta gure zaletasunaren gune naturala den mendian. Hortaz, mendia eta euskara uztartzeko urratsa eman nahi duen oro gonbidatzen dugu, maila kolektiboan zein pertsonalean.

Mendi irteera Lizarragako bentan hasiko da, goizeko bederatzietan, eta Euskal Herriko erdigune geografikoa (Andia mendilerroan) izango du helburu. Ibilbideak, joan-etorrian, 22 kilometroko luzera du eta 200 metroko desnibela.

Ibilbide hau aukeratu dugu, hain zuzen, **Euskal Herriaren bihotzean** dagoelako, eta Euskal Herriko bazter guztietako mendizaleontzat eskurakoiagoa delako.

Eguraldi kaxkarra balego (lainoa, bereziki) beste ibilbide motzago bat egingo genuke, segurtasunagatik: abiapuntu beretik San Adrian ermitaraino (8 kilometroko joan-etorria eta 84 metroko desnibela).

Hauek gara, oraingoz, “MENDIAN ERE EUSKARAZ” ekimenarekin **bat egin dugun mendi-taldeok**:

MENDIAN EUSKARAZ (E.H.koa), MARIMENDI (E.H.koa), ETZANDARRI (Lemoizkoa), BLAGAN (Hondarribiakoa), AÑORGA K.K.E (Donostiakoa), MENDIAK ETA HERRIAK (E.H.koa), GEUrekin mendira (Gasteizkoa), PLATEROTARRAK (Donostia-Antiguakoa) eta BEGIRALEAK kultur elkartea(Donibane-Lohitzunekoa)

Talde guztiok batera ortzadar zabala islatzen dugu, bai geografikoki zein beste esparrutan: **Euskal Herrikoa eta nazioartekoa, emakumeena, gazteena eta umeena**, eta, bukatzeko, **maila lokalean** aritzen direnena. **Bultzatzaileen aniztasuna**, beraz, nahiko zabala eta aberatsa da. Harremanetan gaude beste talde batzuekin eta sare sozialen bidez joango gara atxikipenen berri ematen.

Oharrak:

- Ibilbide osoan ez dago iturririk, beraz, norberak berea eraman behar du.
- Ibilbide osoan ez dago zuhaitzik, ez itzalik, hori dela eta, egun eguzkitsua bada, zaindu beharreko kontua da, kapela egokiak eramanez.
- Bi geldione egingo ditugu, lehenengoa Aitzurin(Peña Blanca) hamaikak aldera, eta bigarrena erdigune geografikoan.
- Ibilbidean bi aukera daude, bata mendizerratik eta bestea, errazena, pistatik. Bakoitzak aukera dezala berea, indarren arabera. Antolatzaileok mendizerrakoa lehenetsiko dugu. Dena den eguraldi onarekin elkar ikusiko dugu, gertutik, inongo arazorik gabe.
- Edozein mendi irteeran bezala, mendiko aseguruia izatea gomendatzen diegu etorriko direnei.